

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 448/2016 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, onartzen duena 216 eredua, "Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa" izenekoa

Indarrean dagoen eredua onartu zenetik aldaketak egon dira arauetan; gainera, 21/2014 Foru Araua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, eta 3/2016 Foru Dekretua, hura garatzen duen arautegia onartzen duena, onartu dira. Horiek horrela, eredu hori eguneratu behar da.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren inguruan emandako txostenari atxiki zaio.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 216 eredua onartzea

216 eredua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, onartzen da. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa.

Foru agindu honi erantsirik doan eredu horrek bi ale ditu: bata administrazioarentzat da eta bestea interesdunarentzat.

2. artikulua. 216 eredua aurkeztera behartuak

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipena eta konturako sarrera egin behar dituzten subjektuek aurkeztu behar dute eredu hau, kasu hauetan izan ezik:

– Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioen edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan atxikipena eta konturako sarrera egin behar dituztenek ez dute aurkeztu behar.

– Zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek ez dute aurkeztu behar.

– 21/2014 Foru Arauk, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 25. artikuluko 2. zenbakian aipatzen duen atxikipena egin behar dutenek ez dute aurkeztu behar establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinaz erosiz gero.

21/2014 Foru Arauaren 31. artikuluan eta Arautegiko 15. artikuluan xedatzen denaren arabera ondoko hauek dira 216 eredua erabili behar duten subjektuak:

Egoitza Espainiako lurraldean daukaten entitateak, errentak esleitzeko araubidean daudenak barne.

b) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten pertsona fisikoetatik jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak, baldin eta jardueran errentarik ordaintzen badute.

e) Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkorrekarekin.

d) Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak ondoko etekin hauek direla eta: ordaintzen dituzten lanaren etekinak; atxikipena aplikatu beharreko beste etekin batzuk, hain zuzen ere gastu kengarriak direnak iturri jakin batzuetako errentak lortzeko (iturriak: zerbitzu prestazioak, laguntza teknikoa, ingeniarietza kontratuen ondoriozko instalazio edo muntaketa obrak, eta, oro har, jarduera edo ustiapen ekonomikoak).

e) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiarekin bat etorritik, atxikitzea behartuta dauden subjektuak, finantza aktiboen gaineko eragiketetan eta Estatuko zor baloreak eskualdatzean.

f) Sarietan, saria ematen duen pertsona edo erakundeak.

3. artikulua. 216 ereduaren aurkezteko era

216 ereduari dagozkion autolikidazioak telematikoki aurkeztuko dira.

4. artikulua. 216 ereduaren aurkezteko epea

Hiru hilabeterik behin: apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehen hogeita bost egunetan, urtean urteko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoak direla-eta atxiki beharreko zenbatekoei eta egin beharreko konturako diru sarrerei dagokionez.

Hileko aitortpena: dagokion hil aitortpen aldiko hurrengo hilaren lehen hogeita bost egunetan, salbu eta uztaileko aitortpena. Aitortpen hori abuztuaren eta irailaren lehen hamar egunetan aurkeztu ahal izango da.

Epea larunbat edo egun baliogabe batean bukatzen bada, hurrengo lehen egun baliogabe arte luzatu ahal izango da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru agindu honen 3. artikuluan xedatutakoa gorabehera, salbuespenez, harik eta 216 ereduaren bide telematikoz aurkeztea izan arte, paperean aurkeztu ahal izango da. Horretarako ereduaren Arabako Foru Aldundiaren www.araba.eus orrian egongo da eskueran.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Agindua, 216 ereduari dagokionean.


AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 1a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTINEZ

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus		Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK Impuesto sobre la renta de no residentes Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA		216		
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos						
IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICATION	Identifikazio txartela jartzeko lekua Espacio reservado para la etiqueta identificativa			SORZTAPENA DEVENIDO Ekitaldia Ejercicio <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>		
	IFZ ■ NIF <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>			Zergaldia Período <input type="text"/> <input type="text"/>		
Sozietatearen izena ■ Denominación o razón social <input type="text"/>			901 Ordeko aitortpena Declaración sustitutiva <input type="text"/> <input type="text"/>			
			Aitorpen osagarria Declaración complementaria <input type="text"/> <input type="text"/>			
Likidazio aldi honetan sartu zara hartzekodunen konkurtsoan? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ ¿Ha sido declarado en concurso de acreedores en el presente período de liquidación? <input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO						
Konkurtsoa deklaratzan duen autoaren data Fecha en que se dictó el auto de declaración de concurso 908 <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>			Konkurtsoan sartzeko autoa aldi honetan eman bada, autolikidazio mota adierazi Si se ha dictado auto de declaración de concurso en este período, indique el tipo de autoliquidación			
			909 Konkurtso aurrekoa ■ Preconcurso <input type="text"/> <input type="text"/>			
			Konkurtso ondokoa ■ Postconcurso <input type="text"/> <input type="text"/>			
AUTOLIKIDAZIOA AUTOLIQUIDACIÓN	I. Atxikipena aplikatu behar zaien errentak ■ I. Rentas sometidas a retención:					
	Errenta kop. ■ Nº de rentas		Atxikipen oinarrien batura ■ Suma de las bases de retención		Atxikipen zenbatekoa ■ Importe de las retenciones	
	Diruzkoak Dinerarias <input type="text"/> 01	<input type="text"/> 02	<input type="text"/> 03			
	Errenta kop. ■ Nº de rentas		Konturako sarrerren oinarrien batura Suma de las bases de ingreso a cuenta		Konturako sarrerren zenbatekoa Importe de los ingresos a cuenta	
	Gauzakoak En especie <input type="text"/> 04	<input type="text"/> 05	<input type="text"/> 06			
	II. Atxikipena aplikatu behar ez zaien errentak ■ II. Rentas no sometidas a retención:					
	Errenta kop. ■ Nº de rentas		Errenten zenbatekoa ■ Importe de las rentas			
	Diruzkoak Dinerarias <input type="text"/> 07	<input type="text"/> 08				
	Errenta kop. ■ Nº de rentas		Gauzako errenten balioa ■ Valor rentas en especie			
	Gauzakoak En especie <input type="text"/> 09	<input type="text"/> 10				
III. Likidazioa, guztira ■ III. Total liquidación:						
Atxikipenen eta konturako sarrerren batura (03 + 06) ■ Suma de retenciones e ingresos a cuenta (03 + 06)				<input type="text"/> 25		
KENDU BEHARREKO KOPURUA (AUTOLIKIDAZIOA ORDEZKOA BADA SOILIK): A DEDUCIR (EXCLUSIVAMENTE EN CASO DE AUTOLIQUIDACIÓN SUSTITUTIVA):						
Aurreko autolikidazioetan kontzeptu, ekitaldi eta zergaldi berberen arabera sartutako zenbatekoak Importes ingresados en anteriores autoliquidaciones por el mismo concepto, ejercicio y período				<input type="text"/> 1225		
Sartu beharreko kopurua (25 - 1225) Resultado a ingresar (25 - 1225)				<input type="text"/> 1212		
Luzapen errekarria ■ Recargo de prórroga				<input type="text"/> 1215		
Berandutze interesak ■ Intereses de demora				<input type="text"/> 1220		
Ordaindu beharreko zerga zorra ■ Deuda Tributaria a pagar				<input type="text"/> 1230		
ORDEZKOA / SARRERA SUSTITUTIVA COMPLEMENTARIA	Autolikidazioa ordezkoa edo osagarria bada, idatzi hemen aurreko autolikidazioaren aurkezpenaren erregistro zenbakia: En caso de autoliquidación sustitutiva o complementaria, consigne a continuación el número de registro de entrada de la autoliquidación anterior:					
	<input type="text"/> 902					
NEGATIBOA NEGATIVA	Aitorpen negatiboa (1212. laukiko zenbatekoa zero bada, "X" jarri behar da) Declaración negativa (se consignará una "X" si la casilla 1212 es igual a cero)					
	<input type="checkbox"/>					
SARRERA PROGARRIA JUSTIFICANTE DE INGRESO	Data ■ Fecha		Ordainketa gutuna Carta de pago			
	Atxikitzailearen sinadura Firma del retenedor					
Zigilua eta sinadura ■ Sello y Firma		Entitatearen Gakoa ■ Clave Entidad		Data ■ Fecha		
				Zenbatekoa ■ Importe		

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK JARRAIBIDEAK</p> <p>Impuesto sobre la renta de no residentes Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA INSTRUCCIONES</p>	<p>216</p>
--	--	-------------------

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

Azalpen orokorra

216 eredia aurkeztu behar dutenak

EEEZren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipena eta konturako sarrera egin behar dituzten subjektuek aurkeztu behar dute eredu hau, ondoko kasu hauetan izan ezik:

- Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioen edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan atxikipena eta konturako sarrera egin behar dituztenek ez dute aurkeztu behar.

- Zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek ez dute aurkeztu behar.

- 21/2014 Foru Arauk, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 25. artikuluko 2. zenbakian aipatzen duen atxikipena egin behar dutenek ez dute aurkeztu behar establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezin erositako gero.

21/2014 Foru Arauko 31. artikuluan eta Arautegiko 15. artikuluan xedatzen denaren arabera ondoko hauek dira 216 eredia erabili behar duten subjektuak:

a) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten entitateak, errentak esleitzeko araubidean daudenak barne.

b) Egoitza Espainiako lurraldean dutela jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak, jarduera horretan ordaindutako errentak direla eta.

c) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten EEEZren zergadunak.

d) Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten EEEZren zergadunak ondoko etekin hauek direla eta: ordaintzen dituzten lanaren etekinak; atxikipena aplikatu beharreko beste etekin batzuk, hain zuzen ere gastu kengarriak direnak iturri jakin batzuetako errentak lortzeko (iturriak: zerbitzu prestazioak, laguntza teknikoak, ingeniariaritzaren kontratuen ondoriozko instalazio edo muntaketa obrak, eta, oro har, jarduera edo ustiapen ekonomikoak).

e) Finantza aktiboen gaineko eragiketetan eta Estatuaren zorren baloreen eskualdaketetan, PFEZen araudiaren arabera atxikipena egin behar duten subjektuak.

f) Sarien kasuan, saria ordaintzen duen pertsona edo erakundea. 21/2014 Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakiarekin bat etorritik, ez da atxikipenik aplikatu behar ondokoak direla eta:

1. 21/2014 Foru Arauko 14. artikuluan ezartzen duenaren arabera edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen aplikagarri baten arabera salbuetsita dauden errentak. Hori gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharko zaie 21/2014 Foru Arauko 14. artikuluko 1. zenbakiko l), m) eta n) letratan aipatzen diren errentei.

2. Establezimendu iraunkorrik ez duten zerga honen zergadunei ordaindutako errentak, baldin eta frogatzen bada zerga ordaindu dela edo errenta salbuetsita dagoela.

3. Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarriko 4. zenbakiko c) letran aipatzen diren errentak.

4. Ondare irabaziak, hauek izan ezik:
- Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edota ausazko konbinazioetan parte hartuta lortzen diren sariak, ondasun, produk-

Cuestiones generales

Obligados a presentar el modelo 216

Están obligados a presentar este modelo los sujetos obligados a practicar retención e ingreso a cuenta sobre las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del IRNR, salvo los siguientes supuestos:

- Los obligados a practicar retención e ingreso a cuenta en las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las Instituciones de Inversión Colectiva.

- Los obligados a retener o a ingresar a cuenta sobre los premios de determinadas loterías y apuestas.

- Los obligados a practicar la retención a que se refiere el apartado 2 del artículo 25 de la Norma Foral 21/2014, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, en la adquisición de bienes inmuebles a no residentes sin establecimiento permanente.

Los sujetos obligados a utilizar el modelo 216, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31 de la NF 21/2014 y en el artículo 15 del Reglamento, son los siguientes:

a) Las entidades, incluidas las entidades en régimen de atribución de rentas residentes en territorio español.

b) Las personas físicas residentes en territorio español que realicen actividades económicas, respecto de las rentas que satisfagan o abonen en el ejercicio de las mismas.

c) Los contribuyentes del IRNR mediante establecimiento permanente.

d) Los contribuyentes del IRNR sin establecimiento permanente respecto de los rendimientos de trabajo que satisfagan así como respecto de otros rendimientos sometidos a retención que constituyan gasto deducible para la obtención de rentas derivadas de prestaciones de servicios, asistencia técnica, obras de instalación o montaje derivadas de contratos de ingeniería y, en general, de actividades o explotaciones económicas.

e) En las operaciones sobre activos financieros y en las transmisiones de valores de la Deuda del Estado, los sujetos obligados a retener de acuerdo con la normativa del IRPF.

f) En el caso de premios, la persona o entidad que los satisfaga. De acuerdo con el apartado 4 del artículo 31 de la NF 21/2014, no se exigirá la retención respecto de:

1. Las rentas que estén exentas en virtud de lo establecido en el artículo 14 de la NF 21/2014 o en un Convenio para evitar la doble imposición que resulte aplicable. No obstante lo anterior, si existirá obligación de practicar retención o ingreso a cuenta respecto de las rentas a las que se refieren las letras l), m) y n) del apartado 1 del artículo 14 de la NF 21/2014.

2. Las rentas satisfechas o abonadas a contribuyentes por este Impuesto sin establecimiento permanente, cuando se acredite el pago del impuesto o la procedencia de la exención.

3. Las rentas a que se refiere la letra c) del apartado 4 de la disposición adicional decimocuarta de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

4. Las ganancias patrimoniales con excepción de:
- Los premios derivados de la participación en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias estén o no vincula-

tu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egotea gorabehera.

- Araban dauden ondasun higiezin eskualdaketa.
- Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen diren errentak, Inbertsio kolektiboko entitateen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Arautegiko 79. artikuluan arautzen diren funtsetako eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortzen direnak izan ezik.

5. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Arautegiko 78. artikuluko b), c), f), g) eta i) letretan aipatzen diren errentak; b) letran aipatzen direnetako batzuk aurrean esandakotik salbuesita daude, hain zuzen ere arau bidez zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bidez lortzen diren errentak.

Aurrekoa gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da kapital soziala murriztu eta ekarpenak itzultzen direnean eta akzio jaulkipeneko prima banatzen denean, 439/2007 Errege Dekretuak onartzen duen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Arautegiko 75. artikuluko 3. zenbakiko h) letrako bigarren paragrafoan ezartzen den bezala.

Aurrean aipatutako zergapeko horiek, gainera, 216 ereduaren arabera 21/2014 Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian xedatzen denaren arabera atxikipenik ez konturako sarreerarik egin behar ez den kasuetan; horrelakoetan, alabaina, ezinbestean adierazi behar da zenbat diren autolikidazioan agertzen den aldiaren ez atxikipenik ez konturako sarrera aplikatu ez zaien errentak, eta zenbatekoa da haien batura.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoari dagokionez, ez dira kontuan hartuko errenta hauek:

1. Zergaren Foru Arauko 14.1.a) artikuluan aipatzen diren errentak.
2. Egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitako baloreek sortutako errentak, kontuan hartu gabe non dagoen dena dela ordaintzen agente gisa diharduen edo baloreen jaulkipenean edo eskualdaketa bitartekari gisa aritzen den finantza entitatearen egoitza.
3. Ez-egoiliarren kontuen etekinak, Espainiako Bankuak edo atzeriarietako transakzio ekonomikoaren araudian aipatzen diren entitate erregistratuak Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten zerga honen zergaduneri ordaintzen dizkietenak.
4. Estatuaren eta autonomia erkidegoen idazpenetako zorraren interesak, ordaintzeko edo atxikipenak itzultzeko prozedura berezia aplikatzen zaienak.
5. Zergaren Arautegiko 14. artikuluko 3. zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen diren errentak, atxikipena eta konturako sarrera egin beharretik salbuesita daudenak.
6. Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarriko 4. zenbakiko c) letran aipatzen diren errentak.

Eme: Establezimendu iraunkorrik ez duen ez-egoiliar bati ondasun higiezin eskuratzen dioteneke ez dute erabili behar 21/2014 Foru Arauko, EEEZrenak, 25. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen duen atxikipena (% 3), baizik eta horretarako berariaz sortutakoa (211 eredu).

Identifikazioa

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunetik Harremanetarako Zerbitzuak ematen dituen identifikazio etiketak itsatsi behar dira.

Sortzapena

Ekitaldia.- Aitorpena zer urte natural dagokion zehaztu behar da.

Zergaldia.- Hiruhilekoko autolikidazioa izanez gero (oro har): 1H= 1. hiruhilekoa; 2H= 2. hiruhilekoa; 3H= 3. hiruhilekoa; 4H= 4. hiruhilekoa.

Hileko aitorpena bada (enpresa handiak): 01= urtarrila; 02= otsai-

das a la oferta, promoción o venta de determinados bienes, productos o servicios.

- La transmisión de bienes inmuebles situados en Álava.
- Las rentas derivadas de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de instituciones de inversión colectiva, excepto las procedentes de participaciones o acciones en los fondos y sociedades regulados por el artículo 79 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de instituciones de inversión colectiva.

5. Las rentas recogidas en las letras b), salvo las obtenidas a través de países o territorios calificados reglamentariamente como paraísos fiscales, c), f), g) e i) del artículo 78 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

No obstante lo anterior, existirá obligación de retener o ingresar a cuenta en los supuestos de reducción de capital social con devolución de aportaciones y distribución de la prima de emisión de acciones previstos en el segundo párrafo de la letra h) del apartado 3 del artículo 75 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Real Decreto 439/2007.

El modelo 216 se utilizará por los obligados tributarios citados anteriormente en los casos en que de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 31 de la NF 21/2014 no proceda practicar retención o ingreso a cuenta, indicando en estos casos el número y el importe de las rentas no sometidas a retención o ingreso a cuenta en el período a que se refiera la autoliquidación.

No obstante, no se tendrán en cuenta, a efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, las siguientes rentas:

1. Las rentas a que se refiere el artículo 14.1.a) de la Norma Foral del Impuesto.
2. Las rentas derivadas de valores emitidos en España por personas físicas o entidades no residentes sin mediación de establecimiento permanente, cualquiera que sea el lugar de residencia de las instituciones financieras que actúen como agentes de pago o medien en la emisión o transmisión de los valores.
3. Los rendimientos de las cuentas de no residentes que se satisfagan a contribuyentes por este Impuesto, sin establecimiento permanente situado en territorio español, por el Banco de España o por las entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior.
4. Los intereses de la Deuda del Estado y de las Comunidades Autónomas en Anotaciones, sujetos a un procedimiento especial de pago de los mismos o de devolución de retenciones.
5. Las rentas exceptuadas de la obligación de retener y de ingresar a cuenta enumeradas en las letras b) y c) del apartado 3 del artículo 14 del Reglamento del Impuesto.
6. Las rentas a que se refiere la letra c) del apartado 4 de la disposición adicional decimocuarta de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

Atención: los adquirentes de bienes inmuebles a no residentes sin establecimiento permanente, para practicar la retención del 3 por 100 a que se refiere el apartado 2 del artículo 25 de la NF 21/2014 del IRNR, no utilizarán este modelo, sino el específico existente al efecto (modelo 211).

Identificación

Deberán adherirse las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

Devengo

Ejercicio.- Se consignará el año natural a que corresponda la declaración.

Período.- Si se trata de declaración trimestral (con carácter general): 1T= 1er trimestre; 2T= 2º trimestre; 3T= 3er trimestre; 4T= 4º trimestre.

Si se trata de declaración mensual (grandes empresas): 01= ene-

la; 03= martxoa; 04= apirila; 05= maiatza; 06= ekaina; 07= uztaila; 08= abuztua; 09= iraila; 10= urria; 11= azaroa; 12= abendua.

Likidazioa

I. Atxikipena aplikatu behar zaien errentak.

Diruzkoak:

[01]. laukia **Errenta kop.** Aitortzaileak aitortzen hilean edo hiruhilekoan atxikipena aplikatu behar izan dien diruzko errenten kopurua zehaztu behar da.

[02]. laukia **Atxikipen oinarrien batura.** [01]. laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipenen oinarrien guztirako batura idatzi behar da.

[03]. laukia **Atxikipen zenbatekoa.** [01]. laukian aitortutako errentei dagozkien atxikipenen guztirako zenbatekoa ezarri behar da.

Gauzakkoak:

[04]. laukia **Errenta kop.** Aitortzaileak aitortzen hilean edo hiruhilekoan konturako sarrera aplikatu behar izan dien gauzakko errenten kopurua zehaztu behar da.

[05]. laukia **Konturako sarrerren oinarrien batura.** [04]. laukian aitortutako errentei dagozkien konturako sarrerren oinarrien guztirako batura jarri behar da.

[06]. laukia **Konturako sarrerren zenbatekoa.** [04]. laukian aitortutako gauzakko errentei dagozkien konturako sarrerren guztirako zenbatekoa ezarri behar da.

II. Atxikipena aplikatu behar ez zaien errentak.

Diruzkoak:

[07]. laukia **Errenta kop.** Atxikipena aplikatu beharretik salbuetsita dauden zergapeko diruzko errenten kopurua zehaztu behar da.

[08]. laukia **Errenten zenbatekoa.** [07]. laukian aitortutako errenten guztirako zenbatekoa jarri behar da.

Gauzakkoak:

[09]. laukia **Errenta kop.** Konturako sarrera aplikatu beharretik salbuetsita dauden zergapeko gauzakko errenten kopurua zehaztu behar da.

[10]. laukia **Gauzakko errenten balioa.** [09]. laukian aitortutako errenten guztirako balioa jarri behar da.

III. Likidazioa, guztira.

[25]. laukia **Sartu beharreko kopurua.** 03. eta 06. laukietako atxikipenen eta konturako sarrerren batura jarri behar da.

Aitortpen negatiboa

Atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituen aitortzen hilean edo hiruhilekoan atxikipena edo konturako sarrerarik aplikatu behar ez zaien errentak baino aitortzen ez baditu (07 - 10 bitarteko laukiak), hau da, sartu beharreko zerga zorra ([1212]. laukia) zero bada, "X" batez markatu behar du eremu honetako laukia.

Aurkezteko epealdia

Hiruhilekoko aitortpena (oro har): apirilko, uztailko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturalak (aurreko hiruhileko naturaleko atxikipenak eta konturako sarrerak).

Hileko aitortpena (enpresa handiak): hileko aitortpenaldia amaitu ondoko hileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan; salbuespena: uztailko aitortpena abuztuaren eta iraileko egutegiko lehen hamar egunetan aurkez daiteke.

Inprimakiak data eduki behar du eta atxikitzaileak edo konturako sarrerak egin behar dituenak sinatu behar du (edo beraren legezko ordezkariak).

Non aurkeztu autolikidazioa eta sartu dirua

Bat. Aitortpen-likidazioaren emaitza dirua sartu beharra bada, Arabako Foru Aldundiak entitate laguntzaile moduan jarduteko baimenduta dituen kreditu edo aurrezki entitateetako batera jo

ro; 02= febrero; 03= marzo; 04= abril; 05= mayo; 06= junio; 07= julio; 08= agosto; 09= setiembre; 10= octubre; 11= noviembre; 12= diciembre.

Liquidación

I. Rentas sometidas a retención.

Dinerariak:

Casilla [01] **Nº de rentas.** Deberá consignarse el número total de rentas dinerarias sobre las que el declarante haya venido obligado a retener en el mes o trimestre objeto de declaración.

Casilla [02] **Suma de las bases de retención.** Se consignará la suma total de las bases de retención correspondientes a las rentas declaradas en la casilla 01.

Casilla [03] **Importe de las retenciones.** Se consignará el importe total de las retenciones que correspondan a las rentas declaradas en la Casilla [01].

En especie:

Casilla [04] **Nº de rentas.** Deberá consignarse el número total de rentas en especie sobre las que el declarante haya venido obligado a practicar ingreso a cuenta en el mes o el trimestre objeto de declaración.

Casilla [05] **Suma de las bases de ingreso a cuenta.** Se consignará la suma total de las bases para efectuar los ingresos a cuenta correspondientes a las rentas declaradas en la Casilla [04].

Casilla [06] **Importe de los ingresos a cuenta.** Se consignará el importe total de los ingresos a cuenta que corresponda efectuar sobre las rentas en especie declaradas en la Casilla [04].

II. Rentas no sometidas a retención.

Dinerariak:

Casilla [07] **Nº de rentas.** Deberá consignarse el número total de rentas dinerarias sujetas al impuesto exceptuadas de retención.

Casilla [08] **Importe de las rentas.** Se consignará el importe total de las rentas que se hayan declarado en la Casilla [07].

En especie:

Casilla [09] **Nº de rentas.** Deberá consignarse el número total de rentas en especie sujetas al impuesto exceptuadas de practicar ingreso a cuenta.

Casilla [10] **Valor rentas en especie.** Se consignará el valor total de las rentas que se hayan declarado en la Casilla [9].

III. Total liquidación.

Casilla [25] **A ingresar.** Deberá consignarse la suma de las retenciones e ingresos a cuenta declarados en las Casillas [03] y [06].

Declaración negativa

Cuando el retenedor u obligado a ingresar a cuenta, en el mes o trimestre objeto de declaración, incluya exclusivamente rentas no sometidas a retención (Casilla [07] a [10]) y, por tanto, el importe de la deuda tributaria a ingresar (Casilla [1212]) sea igual a cero, deberá marcar una "X" en la casilla indicada al efecto.

Plazo de presentación

Declaración trimestral (con carácter general): durante los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, por las retenciones e ingresos a cuenta que correspondan al trimestre natural inmediato anterior.

Declaración mensual (grandes empresas): durante los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al período de declaración mensual que corresponda, excepto la declaración del mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posterior.

El impreso deberá ir fechado y firmado por el retenedor u obligado a realizar el ingreso a cuenta o por su representante legal.

Lugar de presentación e ingreso

Uno. Si la declaración-liquidación resulta cantidad a ingresar, la presentación y el pago simultáneo de las cuotas se efectuará en las entidades bancarias de crédito o ahorro autorizadas para

behar da kuota aurkeztu eta aldi berean ordaintzeko. Aitorpen-likidazioan nahitaez itsatsi behar dira Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen dituen identifikazio etiketak.

Bi. Aitorpen-likidazioa negatiboa izanez gero, Arabako Foru Aldundiko Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuari aurkeztu behar zaio. Honelakoetan ere nahitaez itsatsi behar dira identifikazio etiketak.

Dokumentazioa

Baldin eta 216 ereduaren agertzen diren errentei atxikipenaren zein konturako sarreraren salbuespenak edo mugak aplikatu bazaizkie, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuek zergaren preskripzioaldia amaitu arte gorde beharko dituzte egoiliar ez diren zergadunek eskubide horiek frogatzeko emandako agiriak.

Hain zuzen ere, atxikipenaren edo konturako sarreraren salbuespena edo muga zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten aplikazioaren ondorioz aplikatzen bada, frogagiri hauek aurkeztu daitezke:

a) Zerga agintaritzak eskudunak emandako egoitza ziurtagiria, berariaz adierazten duena errenta jaso duen zergaduna egoiliarra dela, kasuan kasuko hitzarmenean zehaztutakoaren arabera. Ziurtagiri horrek urtebeteko indarraldia izango du.

b) Garapen agindua daukan hitzarmen baten aplikatu ahal bada, murrizketaren edo salbuespenaren formularioa.

Zerga ordainduta dagoela eta atxikipenik egin ez bada, hori frogatzeko errentari dagokion zergaren aitorpena, zergadunak edo haren ordezkariak aurkeztutakoa, erabili behar da.

actuar como entidades colaboradoras por la Diputación Foral de Álava. Las declaraciones-liquidaciones deberán llevar obligatoriamente adheridas las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

Dos. Tratándose de declaraciones-liquidaciones negativas, éstas deberán presentarse en el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Diputación Foral de Álava. Igualmente éstas deberán llevar adheridas obligatoriamente las etiquetas identificativas.

Documentación

Cuando en el modelo 216 se consignen rentas respecto de las que se hayan aplicado exenciones o límites de retención o ingreso a cuenta, los sujetos obligados a retener o a efectuar ingreso a cuenta deberán conservar durante el plazo de prescripción del Impuesto, la documentación que les haya sido aportada por los contribuyentes no residentes al objeto de justificar dichos derechos.

En particular, cuando dichas exenciones o límites de retención o ingreso a cuenta deriven de la aplicación de un Convenio para evitar la doble imposición, la documentación a que se refiere el párrafo anterior podrá consistir en:

a) Un certificado de residencia, expedido por la autoridad fiscal correspondiente, en el que deberá constar expresamente que el contribuyente perceptor de la renta es residente en el sentido definido en el Convenio de que se trate. Dicho certificado tendrá una validez de un año.

b) El pertinente formulario de reducción o exención cuando resulte aplicable un Convenio respecto del que exista una Orden de desarrollo.

Cuando no se practique retención por haberse efectuado el pago del Impuesto, se acreditará mediante la declaración del impuesto correspondiente a dicha renta presentada por la o el contribuyente o su representante.